

Gizartegintzako Hirugarren Sektorearentzat Kalitate Proiektuaren Aurkezpena

EDE Fundazioaren Aholkularitza Saila



edefundazioa

100bbk

ZERTAN DATZA:

-MARKO ORIENTAGARRIA PRESTATZEA ETA
LAGUNTZA SISTEMAK HOBETZEA

-PIXKANAKA KALITATE SISTEMAK
EZARTZEKO

- BIZKAIKO GIZARTEGINTZAKO IRABAZI-
ASMORIK GABEKO ERAKUNDETAN

Hartzaile zuzenak

- Gizarte ekintza arloko hirugarren sektoreko erakundeak, neurri eta baliabide maila desberdinekoak.
- Eredu eta arau desberdinetatik, kalitate sistemak ezartzeko prozesuak babesten dituzten erakunde publiko edo pribatuak.
- Gizarte ekintza arloko hirugarren sektoreko erakundeak babesten dituzten erakunde publiko eta pribatuak, beti ere, beraien kudeaketa hobetzeko ikuspuntu eta eredu berriak sartzeko interesa badute.

Helburu nagusia



Erakundeek kalitate sistemak
inplementatzea, pixkanaka eta
bakoitzaren aukeretara egokituta

Helburu bereziak (I)

Erakundeentzat:

- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko orduan erabakiak hartzea erraztuko duen marko orientagarria izatea erabilgarri.
- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzen hasteko informazioa eta baliabideak izatea.
- Beraien ezaugarrietara egokitutako inplementazio sistema izatea eta erakundeen kudeaketaren tradizioa, kultura eta praktika biltzea.
- Erakundeek, batez ere beharrian handiena izan dezaketenek, beraien beharrianetara eta erabilgarri dituzten baliabideetara egokitzen den laguntza sistema izatea erabilgarri.
- Erakundeek kalitatearekin erlazionatutako alderdiei buruzko gogoetarako espazio amankomuna izatea; informazio eta prestakuntza saioak, praktika onak konpartitzea, etab.

Helburu bereziak (II)

Eredu eta arau desberdinetatik kalitate sistemak ezartzeko prozesuak babesten dituzten erakunde publiko edo pribatuentzat



✓ Irabazi asmorik gabeko erakundeen sistemen (ereduak, arauak...) doikuntzari buruzko planteamenduan sakontzea eta beraien aplikazioa aztertzea: erakundeetan ze baldintzatan aplika daitezkeen, babes teknikoa eta abar. Gainera, erakunde horien ezaugarrietara eta benetako aukeretara egokitutako babes sistema bat diseinatu behar dute.

Helburu bereziak (III)

Zerbitzuak eta proiektuak hitzartu edo babesten dituzten herri administrazio eta erakundeentzat

- ✓ Irizpideak izan ditzatela, kalitatea kudeatzeko sistemen pixkanakako ezarpenaren ikuspegitik, erakundeek laguntza deialdietara aurkezten dituzten edo hitzartzea proposatzen dituzten zerbitzuak eta proiektuak baloratzeko, eta, hala badagokio, deialdietan eta lehiaketetan gizarte klausulak sar ditzatela.



Ikerketa fasea (07ko urtarrila / 07ko abendua)

- Proiektua hirugarren sektoreko hiru sareri aurkeztea: Gizardatz, FEVAS eta EAPN-Euskadi dira erakunde horiek; gainera, proiektuaren garapenean inplikaturik dauden eta lan horretan garrantzitsuak izan daitezkeen erakunde publiko eta pribatu guztiei ere aurkeztuko zaie proiektua.
- Praktika onen identifikazioa. Kalitate sistemak ezartzeko saiakerak egin dituzten erakundeen esperientzien bilketa.
- Gaur egun dauden kalitate sistemen sakoneko azterketa, arreta berezia jarriz orientazio sisteman eta kalitate sistemen ezarpena babesten duten erakundeen laguntza sisteman.
- Tresnen prestaketa: egokitutako kudeaketa ereduak, orientazio gida pixkanakako ezarpenarako, eta laguntza sistemak hobetzeko proposamenak..



Aplikazio fasea



- Tutoretzak 20 erakunderi: aurretiazko diagnostikoa, prozesuaren orientazioa eta implementazio ibilbidea.
- Erakundeei pixkanakako ezarpenari buruzko orientazioa ematen dien agiriaren aurkezpena.
- 6 erakunderi laguntzea pixkanakako ezarpenean.
- Proiektuak kalitatearen ikuspegitik baloratzeko irizpideak jasoko dituen gida baten prestaketa.
- Apurka-apurka kalitate sistema ezartzeari buruzko informazioa eta orientazioa nahi duten erakundeekin tutoretza pertsonalizatuak egitea (aldez aurreko diagnostikoa).

Emaitzak transferitzeko fasea

- Garatutako tresnak argitara ematea eta dibulgatzeko ekintzak egitea.
- Tresnen argitalpen inprimatua eta digitala.
- Tresnen eta egindako prozesuaren hedapena, hirugarren sektoreko erakundeei, kalitate sistemen ezarpena babesten duten erakundeei eta gizarte proiektuak babesten dituzten administrazio eta bestelako erakundeei zuzendutako jardunaldien bitartez.
- Esperientzia jasotzen duen eta tresnen agiriak biltzen dituen agiriaren hedapena, erakundeei, kalitate sistemen ezarpena babesten duten erakundeei eta gizarte proiektuak babesten dituzten administrazio eta bestelako erakundeei zuzendutako sustapen pertsonalizatuko kanpainen bitartez.
- Proiektuan parte hartu duten erakunde eta sareekin batera, tresnak eta prozesua hirugarren sektoreko erakundeei eta EAEn eta Estatu guztian kalitate sistemen ezarpenean lan egiten duten erakundeei hedatzea.
- Erakundeekin egindako tutoretza pertsonalizatuen doako zerbitzua mantentzea.
- Azken ebaluazioa.
- Tresnak hobetzeko proposamena eta etorkizunerako ekintza eta proiektuen identifikazioa.

Proiektuaren amaieral produktuak (I)



1. Markoa: kudeaketa sistemen ezarpena.
2. Hirugarren sektoreak kudeatutako gizarte zerbitzu eta proiektuen kalitatea kudeatzeko sistemen apurka-apurkako ezarpena baloratzeko irizpideak.
3. Gizarte ekintza arloko hirugarren sektorean kalitatearen kudeaketarako sistemak ezartzeko babes sistemak hobetzeko proposamenak.


1. Markoa: kudeaketa sistemen ezarpena.

- Gizarte ekintza arloko hirugarren sektoreko erakundeetara egokitutako kalitatearen kudeaketarako ereduak.
- Bizkaiko gizarte ekintza arloko hirugarren sektorearen egoeraren azterketa, kalitatearen esparruan.
- Gizarte ekintza arloko hirugarren sektoreko erakundeak kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenera hurbilarazteko informazioa, baliabideak eta babes sistemak.
- Gizarte ekintza arloko hirugarren sektoreko erakundeetan, kalitatea kudeatzeko sistemak apurka-apurka ezartzeko orientazioak.

2. Babes sistemak hobetzeko proposamenak

- Dauden babes sistemetan hobekuntzak sartu behar dira, erabilgarriak izan daitezen zailtasun gehien dituzten erakundeentzat.
- Gaur egungo baliabideak erabiltzen dituzten erakundeen tipologia zehaztuko da, eta erabiltzen ez dituztenek zergatik ez dituzten erabiltzen jakiteko ahalegina egingo da, “sarrerako hesien” existentzia ikertuz eta hesi horiek identifikatuz.

Informazio gehiago jasotzeko:



Izaskun Barbero
Kalitate Zerbitzua
944009999
ibarbero@fundacionede.org



edefundazioa

toobbk